

BERRIGARA


52. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1992, otsailak 14




**Txakurren
egoitza
Gaitaon**




**Gutxitu
fisikoen
egoera aztergai**



**A. Esparza
E.E.ko
zinegotziarekin**




**Kirol
beharren
ikerketa**



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa



Gizon

Emakume

Barrenkale 35

Irala 2

BERGARA

X A L O

IZOZKIDENDA

KAFETEGIA

GOZOTEGIA



GOSARIAK

eta

ASKARIAK

SIMON ARRIETA

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurilaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate. Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpideizak:

Aitor Aranzabal, Iñaki Arietaleaniz eta Edurne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Josune Iñarra, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikufña, I. Sorondo eta Josune Sanjuan

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa : Txantxangorri Taldea

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lego gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Trauma eta Beer Mosh musika talde bilbotarrek larunbatean beraien maketen aurkezpena egingo dute. Gaztetxeak aspaldi honetan martxan jarri duen programazio musikala aurrera doa eta oraingo honetan Euskadin egiten ari den hard-corea ezagutzeko aukera eskeintzen zaigu. Larunbatean, gaueko 10.30etan.

LARUNBATA 15

- **Saskibaloia:**
- *Bergara-Oñati* (junior mutilak), 16.00etan.
- *Bergara-Lasalle* (kadete mutilak), 16.30etan.

- **Eskubaloia:**
- *Bergara-Arrasate* (senior gizonak), 17.45etan.
- *Bergara-Leizaran* (kadete neskek), 19.00etan.

- **Pelota partiduak:**
- *Arteaga-Mendia/Ariznabarreta-Urra*, Eugi-Galarza III./Bergara II.-Errandonea eta Retegi III.-Unsain/Irazola-Andueza VI.. Frontoian, 16.30etan.

- **Jaialdia:**
- *Amnistiaren aldeko jaialdia*. Antzuolako zine-aretoan, 22.00etan.

IGANDEA 16

- **Eskubaloia:**
- *Bergara-Urrietako* (gazte mutilak), 9.45etan.
- *Bergara-Pulpo* (junior mutilak), 11etan.

- **Saskibaloia:**
- *Bergara-Zurriola* (senior gizonak), 12etan.
- *Arrasate-Bergara* (senior emakumeak), Arrasaten, 18.00etan.

FARMAZIAK



- 15 Camacho
- 16 Camacho/Azkoaga (Arrasaten gauez)
- 17 Puy/Español
- 18 Guallar/Corcuera
- 19 Estella/Irizar
- 20 Mozos/Amezua
- 21 Camacho/Morales

ZINEA



Billy Bathgate

- **OSTIRALA:** 22.30.
- **LARUNBATA:** 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
- **IGANDEA:** 17.00, 19.30 eta 22.15etan.
- **ASTELEHENA:** 19.30.

Bingo

- **IGANDEA:** 11.30etan.

Relación Fatal

- **OSTEGUNA:** 19.30.

OGIA



Ogizun

MAKAILO
Makailau ETXEA
kazuelak gertatzen ditugu
Ibargaral 15

Pepelu
Ileapaindegia
Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07


Ziripot
Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

Kintuak ala pituak?

Ohiturari jarraituz Bergaran talde asko irten ziren Gabon bezperan kale-etan zehar abestera. Honetariko talde bat Kintuak ziren.

Zeintzuk dira Kintuak?. Kintuak soldaduzkara joateko zozketatzen dituzten mutil taldeari deitzen zaio. Talde hauek goizean zehar abesten lortzen duen diruarekin bazkari bat eta ondorengo parranda ordaintzen duela argitu behar da.

Aurten aurreko urteetako ohitura matxista eta militaristari aurre egin nahian, 73ko kintadako neska talde bat ere irten gara kantatzera eta badirudi kinto batzuei ideiak ez diela graziarik egin. Eta dena zergatik? Pitorik ez daukagulako?. Beraz kintoak ala pituak?. Argi utzi behar dena zera da, komentario hau ez dela guk asmatutakoa, entzundakoa baizik.

Eta ez zen hau izan entzun genuen komentario bakarra. Entzun ipintzen dugu, kinto bakar batek eduki bait zuen adorea bere eritzia argi eta garbi adierazteko. Mila esker berarentzat.

Beste komentario tristeetako bat zera izan zen: bazkaria ordaintzeko dirurik lortu ezean neskek ez genuela bazkalduko. Ez ote genuen denak beste abestu?, beraz ez ote genuen bazkaria besteak beste merezi?.

Entzundako komentario guztiekin gehiegi luzatuko ez garenez horrela utziko dugu.

Hala ere ez dugu eskutitz hau bukatu nahi talde honi galdera batzuk igorri gabe:

- Kintuak soldaduzkara doazen mutil taldeak osatzen badute, zergatik joaten dira kantatzera objetore eta intsumisoak direnak edo libratu direnak?, ez al daukagu guk hauek bezain beste eskubide?.

- Neskek intsumisioan eta objeizioan parte hartu eta mutilak bultzatu baldin baditzaizkegu, zergatik ezin dugu bazkari eta jaietan parte hartu?.

Eta bukatzeko, hiru ohartxo baka- rrik:

- Ez dugu ulertzen antimilitarismoak Bergaran duen indarrarekin nola jarraitzen diren egiten honelako ohitura militaristak. Honekin esan behar da ez gaudela inola ere parrandaren kontra, baizik eta enfokalzen zaion ikuspuntu- aren aurka.

- Azkenik datozen urteetako neskei postura hau jarraitzera amnizatzen diegu, oso ondo pasatzen da eta.

Besterik gabe, gehientsuenok eza- gutzen gaituzuenok.

A. A.



Ez al joskuek aurria hartuko?

Zer arraxo mutilak, nora begira garek?. Osintxuarrak edo antzuolarrak aurria hartzen bajoskuek, leku ederrian geldituko gaituk!

Sekula baiño dinamizatzaile geixau eukitta, sekula baiño mobimentu gutxiago daukagula herrixan emoten jok.

Or dok Euskal Telebistan itxuria jarraitzaile ugeri daukan Iñaki Perurenaren Herriko Plazan programia eta etxakixat txantxikuarren ala mondrauetarren beldur gan, edota plaentxiarrei be irabazteko gauza ez garen.

Dana dela be, ez al dittuk osintxu- arrak guri aurria hartuta presentauko, zeatik deskuiduan irabaziko balebe gainera, edozeifiek aguantuko jittuan, eurak "mundialak" izaten jarraituko leukiek eta gu berriz, batzun amesetia dan "europear" izatera be ez gifustan aillegauko.

Xirrika

Tiiira ba!



Josu Okina

□ Erlajazioa

Bergarako Osasun eta Ongizate Batzordeak erlajazio ikastaroa antolatu du. Ikastaro honen helburua egungo gizartean hain arruntak diren tentsio edo stress egoerei aurre egiten ikastea litzateke. **Pilar Mayo** sikologoak otsailetik ekainera bitarteko ostegunetan, 7etatik 8.30etara, emango duen ikastarorako plazak mugatuak dira eta interesatuek udaletxean eman beharko dute izena.

□ Marrazkilariak

Kultur Ekintzak otsailaren 15etik 23ra arte Kultur Etxean ikusgai izango den marrazki erakusketa antolatu du. Bertan, **Carlos Albisua**, **Jose Mari Arteaga**, **Jose Antonio Borobia**, **Marino Gonzalez**, **Iñaki Iturbe** eta **Iñaki Jasoren** marrazkiak biltzen dira.

Udalak gutxitu fisikoen egoera aztertuko du

Alvaro Esparza Enplegu eta Gizarte Arazo-etarako batzorde buruak, **Ines Etxeberria** teknikariak eta **Begoña Larrabe**, Udalak kontrataturiko soziologoak, Bergarako Udalak minusbalituei buruz egingo duen azterketaren berri eman zuten ostiralean. Diputazioaren milio bat pezetako diru-laguntzarekin, Begoña Larrabe getxorak ekain aldera amaituko duen azterketa honen bi zati izango ditu: minusbalituek bizitzan dituzten era guztietako arazo eta beharren azterzea eta Bergarako herriak dituen traba urbanistiko eta arkitektonikoak identifikatzea.

Trabak kendu

Inkesta, talde bilerak edota elkarrizketa sako-



nen bitartez, Begoña Larrabek kolektibo honen egoeraren eta beharren analisi sakon bat egitea du helburu. *Aspace* zentruak proposatuta, gutxitu fisikoek gure herriko hainbat tokitara heltzeko aurre egin behar dizkieten oztopoen zerrrenda ere egingo da, Alvaro Esparzak azaldu

zuenek, "Udalak, etorkizunean, kolektibo honen arazoak kontutan edukitzeko". Traba horien berri eman nahi dutenei Ongizaterako Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko dei egin zien Esparzak. Udal datuen arabera, Bergaran 290 minusbaliatu dira, 90 gutxitu sikikoak direlarik.

Epaiketaren sententzia

Joan den hilaren 21ean epaitu zituzten Bergara, Elgeta eta Antzuolako bost presoek sententzia aste honetan jakin arazi du Madrilako Audentzia Nazionalak. **Jose Luis Loidi**, "Rosli", **Bittore Aierbe**, **Pedro Belastegi** eta **Maite Guridik** sei urteko kartzela zigorra jaso dute eta **Maria Eugenia Graciari** berriz, 23 urteko espetxeratzea ezarri diote. Hurrengo astelehenean, hilak 17, **Pedro Zumelaga** epaituko dute eta **Amnistia-aren Aldeko Komiteak** astelehen goizeko 3retan aterako den autobusa antolatu du. Joan nahi izanez gero, Pol-Pol, Kortazar edota Arranon eman dezakezue izena.



IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa: 76 17 27

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

Mujika

Jantxidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

❑ **Odol emailleak**
Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak Bergarako odol emallei dei egiten die datorren asteazkenean, hilak 19, arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean Seminarioko lokalean egingo den odol ematean parte hartzeko.

❑ **Laguntzak**
Udal zergak ordaintzeko udalak ematen dituen dirulaguntzak jaso nahi dituztenek eskakizuna aurkeztu beharko dute astelehenean, asteazken edota ostiraletan, goizeko 9.30etatik 3etara.

❑ **Urez gainezka**
 Ur zikinen *tuberia itxi zelako* ur pila galanta sartu zen joan zen larunbatean Eroski eta ondoko garajeetan. Urak 15 zm.tako altura hartu zuen eta udaleko brigada eta suhiltzaileak arratsaldeko 3retatik gaueko 2ak arte izan ziren arazoa konpontzen.



Errekak garbitu

Gipuzkoako Diputazioak, Tragsa enpresaren bitartez, Bergarako errekatxoak garbitzeko lanak burutu ditu. Orain pare bat urte *Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteari* eskatu zion erreken azterketaren arabera, Diputazioko *Nekazaritza eta Arrantza Sailak* Uberan (2 Km.), Osintxun (2,5 Km.), Sagar-Errekan (500 m.), Arane-Errekan (Km. bat) eta Deba ibaiaren ere (San Antonio eta Osintxu inguruan) zikinkeriak garbitzeko lanak egin ditu.

Bi milioi inguruko

aurrekontua izan duten garbitze lan hauetan, batez ere, zikinkeriak garbitu dira, hau da, hondakinak, zabor solidoak, kendu dira, erreketako landaretza errespetatuz. Erreka inguruko bide-turrak ere garbitu dira eta Udalak berriz, zabor horiek batzeko beharrezkoak ziren kontenedoreak jartzea besterik ez du egin. Diputazioko Ehiza eta Arrantza zaindariak zuzendu dituen lan hauek makineria erabili gabe, eskuz, egindako lana izan dela azpimarratu du Udalak.

Simon Arrietaren heriotzaren 23. urtemuga

Larunbatean, hilak 15, *Simon Arrieta* bergarar margolari ospetsuaren heriotzaren 23. urteurrena bereko da. 1915eko otsailaren 9an jaioa, 15 urterekin hasi zen pintura lantzen Valentin Zubiaurre, Miguel Zumalabe edota Zuloagaren eskutik.

Parisen, artean ematen ari ziren azken tendentziak bereganatu zituen, 1.953.ean Bergarara itzuliz. Testamentu gisa kritikoez goraipatu izan dituzten koadroak eta ondoren izan dituen jarraitzaileak utzi dizkigu.



TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84


KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

ERROTA - GAIN

Aluminioak



• **Aluminiozko leihoak (Isolamendu termikoa) eta PVC.**

• **Galdaragintza orokorrean**

Labegaraieta - Hazkarruntz Auzoa Tfnoa; 76 32 40
BERGARA



Udal biltegi berria

Vergaresaren autobus geltokia zegoen tokian 15 etxebizitza eta Udalaren biltegia eraikitzeko lanetan dihardu *Construcciones Arregi* enpresak. *Hirigintza Batzordeak* jakitera eman duenez, biltegia, eraikitzen ari diren etxebizitzan atzean joango da, eta bera egingo da lehenengo. Biltegi honek bi pisuko altuera izango du; behekoa, material astunak gordetzeko erabiliko da batipat eta goikoan berri, Udaleko medikua-ren bulegoa eta brigada ezberdinen gelak ko-

katzea pentsatu izan da. Horrez gain, udalaren ibilgailuak gordetzeko erabili ahal izango da eta langileek ere aparkalekua izango dute.

Kultur Etxetik eta herri zentrutik gertu egoteak neurri haundi batean errezuko du lana, pertsonala eta materiala zentralizatuz. Hala ere, biltegia espazio aldetik zertxobait mugatua izango denez, *Xabier Gallastegi* Batzorde buruaren esanetan, "material gehiena hemen gordeko bada ere, beste almagaz bat martxan izango dugu".

Txinpartak

✓ **Iñigo Igartuari**, amaitu berri den denboraldian egindako paper bikainagatik Bergarako Udalak larunbatean egin behar zion omenaldia otsailaren 29ra atzeratu da.

✓ **San Blaseko Mus Txapelketan** Eriko Martinez eta Jose Mari Akizu izan genituen irabazle, finalean Jose Alberto Eguren eta Juan Luis Gonzalez irabazi ondoren.

✓ **Bergarako Monografia** osatzeko falta diren hiru aleak ("*Bergararren historia*", "*Ideolojiak eta mugimendu politikoak Bergaran*" eta "*Etxea, familia eta lana Bergaran*") maitzerako prest egotea espero du Udal Kultur Zerbitzuak.

✓ "**Hanka-besoetako kalanbre eta txindurritzeak** gaiari buruzko hitzaldia emango du Rosa Azkue jubilatuetako sendagileak datorren asteazkenean, hilak 19, arratsaldeko 5etan.

✓ **Sexu heziketa ikastaroa** antolatu du Udaleko Sexologia Zerbitzuak. Ikastaroa martxoaren 2tik apirilaren 1era bitarteko astelehen eta asteazkenetan emango da. Izena emateko Anbulategira deitu dezakezue.

✓ **Gazinemak** *Los dioses deben estar locos* filmaren bigarren partea iragarri du datorren ostiralerako, hilak 21. Gaueko 10etan, Antzuolako zine-aretoan.

✓ **Amnistiaren aldeko jaialdia** ospatuko da larunbatean, hilak 15, Antzuolako zine-aretoan gaueko 10etan. Bertan Patxi Sainz abeslaria, Guk taldea, Jokin eta losu trikitilariak eta Unai Iturriaga eta Kaxeta bertsolariek hartuko dute parte.

Siaska

Dena zure
haurarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

ANTIA HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi
eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

Kiroldegiko Taberna



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41



LIZAR

Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53



GAZTELV S.A.

Burdindegia

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

San Blas

Lehenago Burunanoko Andramaria

Auzo honetan izen zaharrak asko aldatu dira. Hasi-eran ermitarena ez zen San Blas, Burunanoko Andremaria baizik. XVII eta XVIIIgarren gizaldietan erlijioa bizitzeko moda berriek eta Santuaren debozioak eragin eta lehendabiziko izena ahaztuztarainoko aldaketa egin zen. Baina XVgarrean, eta gero ere, argi eta garbi irakurtzen da: Burunanoko Andramaria.

Nik uste dut auzo horretako Buñao, Muñondo etab. denak Burunanotik datozela, eta aldaketak hari hau jarraitu dutela: Burunano= Buruñao (behin horrela 1.500. garren urtean)= Buñao= Muñao. Auzoko baserri batzuen izenak honela izango liriateke jatorriz: Agarre Muñao= Agarre Burunao. Eta Muñondo



baserriak= Burunano-ondo Gañekoa, eta Burunano-ondo Azpikoa.

Ermita hau berezia izandu da: Eliza bera, irudi egokiak, debozio

zaharrak, saietarrak, sarrera polita... Erdi-aroko itxura guztiak dauzka. Andremariaren irudia ere berezia da: eserita dago, besoak gora ditu eta ikuslearengana zu-

zenduak. Bi modutan ikusi liteke: lehendabizikoan, besteak bezalatsu Jesus Haurra ere magalean daukala; eta bigarrean, haurrik gabe, gerritik lotzen den soineko zati bat kendu ondoren, Hirutasun Santua ikusten dela. Berezia, oso irudi gutxi ezagutzen bait dira horrelakoak, eta zer esanik ez dago, Euskadi osoan bakarra dela. Ezagutzen direnak XIVgarren gizaldikoak dira, hau bere bigarren erdikoak izan arren.

Emakume haurdun bati erditzeko miñak hasten zitzaizkionean, Burunanoko Andramariarengana joaten ziren, errezatzera, kriseilua edo kandela piztera, eta lore txuriak eskeintzera.

Imanol Sorondo

LETE

TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
Tfnoa: 79 23 83 ARRASATE
BERGARA Tfnoa: 76 12 24
IURRETA Tfnoa: (94) 6 81 76 19



KORTA-ZAR

Txokolategia

**Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62

BOLINTXO

Okindegia

San Juan Tfnoa: 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
Tfnoa: 79 63 42 ARRASATE

INFERNUKUA TABERNA

Albaro Esparza:

"EE eta PSOEren arteko harremanak sendotu beharko lirateke"

Albaro Esparza Bergarako Udalean gobernatzen duen Euskadiko Ezkerrako lehen zinegotzia dugu. Nafarroako Erriberako Pitillas herrixkan jaloa, hiru urte zituela, Arrasatera etorri zen bizitzera. 14 urte daramatza Bergaran eta Arrasateko Udaletxean administrari lan egiten du. 38 urte ditu.



zituztela argi zegoen. Harreman horiek gero eta nabaria-goak dira, ez dakidana da EUE eta EAk bat egingo duten, edota hauteskundetarako koalizio bat osatuko duten...

- Autobiaren auzian EE orainarte A.2 proiektu ofizialaren alde agertu da. Orain aste batzuk, berriz, Olaberrik A.2 txapuza bat zela esan zuen. Ez dirudi jarrera oso koerentea...

- Olaberriren hitz horiek behar bada gogor xamarrak izan dira, baina bere arrazoiak izango zituen. Dena den, A.2ren aldeko jarrera ETaren txantaiaren aurrean instituzioek hartutako postura izan zen. EEk proiektu ofiziala hobetzeko alternatibak aurkeztu ditu, hain zuzen ere Olaberrik burututako "Lurrazpiko A.2" proiektua eta ildo horretatik jarraituko dugu, nahiz eta beste alderdiek begi onez ez ikusi.

- Egiguzu EEk Bergarako Udalean egiten ari den lanaren balorazioa?

- Aurreko legealdietan oposizioan egon ondoren, orain gobernatzen ari gara eta zortzi hilabete hauetan egingadako lana oso positiboa dela uste dut. Zerbait azpimarratzekotan, herria garbi izateko egiten ari garen lanak.

- Noiztik EEn eta zergatik?

- Politikagintzan urte asko daramatza. Hasieran ELAko liberatu gisa lan egin nuen eta Euskadiko Ezkerran orain dela 10 urte afiliatu nintzen.

Hasieratik berdintasun-askatasunaren ildotik lan egitea izan da nire asmoa, behartsuei laguntasuna eskeintzea. Eta neure burua euskalduntzat dudanez Euskadiko Ezkerran sartzea erabaki nuen.

- Leioan egin berri duzun kongresuan, euskal sozialistenganako hurbiltze bat somatu dute adituek...

Azken kongresuan erabi-

litako lema kontutan hartuta, "Euskal Sozialismoaren Alde", alegia, PSOErentz hurbiltzen ari ginela esan dute askok. Hori ez da horrela, gu partidu euskaldun bat garelako eta PSOE, berriz, ez. Beste kontu bat da, bi partiduon arteko harremanak, eta batez ere biak Internazional Sozialista barruan egonda, bultzatzea. EEk eta PSOEk badute gauza amankomunik, eta zenbait gaitan elkarlanerako bideak irekitzea komeni zaigu bioi. Horrek ez du esan nahi biok bat egingo dugunik.

- Partiduaren erdibitzearen ondoren nola dago orain EE Bergaran?

- Azken hilabeteetan partiduan izandako arazoak


herrian ere bizi izan ditugu, baina harreman pertsonalak onak izan dira. Batzuk partidutik alde egin dute, nahiz eta denak EUEra ez pasatu. Dena dela gehienak EEn geratu dira.

- EUE eta EAren arteko hurbiltze prozesua gero eta argiagoa da. Orain hamar urte inguru Eetik joandako "Ezker Berria"koak, bestalde, hurbiltze horren alde agertu dira. Nola ikusten duzu hori?

- Aspalditik zetorrena agerian geratu da. Hau da, Añamendiako EEn zeudenean argi ikusten zen alderdiaren alde lanean ez zebiltzala, partidua apurtu nahi zutela. EArekin harreman estuak

ELKAR 
ELEKTRAGINTZA
 Mota guztietako instalazioak
 76 00 00 BERGARA

MUGICA
Burdindegia
 Bdekurutzeta 8 Tfnoa: 76 28 67 BERGARA



Txakur nordikoak

Elurra txakurtegian moeta bateko txakurrak bakarrik hazten ditu Axenek: ipar txakurrak hain zuzen ere. Siberiako Husky arrazako 15 bat txakur ditu, beste hiru Alaskako Malamute arrazakoak eta Samoyedo bat. Txakur nordikoak, bere izenak adierazten duen moduan iparrek herrialde hotzetako (Canada, Alaska, Siberia...) txakurrak dira. Estatuan 60ko hamarkadan ekarri zituzten lehen aldiz.

Alaska, Siberia e.a.-etako lurralde izoztuetan elur gainean ibiltzen diren trineoak tiratzeko erabiltzen dituzten txakur horiek dira. Elurretako, hotzetako txakurrak badira ere, inguru hauetan ondo moldatzen dira. Axenen esanetan, "udan ez dute arazorik izaten. Sarri entzun izan dut uda parteko beroak ez dituztela aguantatzen, baina hori ez da egia. Udan, beharbada, beste txakurrak baino ile gehiago botatzen dute baina tenperatura altuetara ondo moldatzen dira, ez dute problemarik izaten".

Bi hilabeteko txakurkumak 80.000 pezetatan saltzen ditu. Orain arte kanpoan bakarrik saldu ditu, Bergarako eroslerik txakur eske ez baitzaio hurbildu.

Bost izarreko hotelean

Txakurrak, gizonaren lagunik leialenak, betidanik erabili izan dira etxeak zaintzeko edota lan ezberdinetarako. Azkenaldian, ordea, asko dira haurrentzako jostailu modura erosten dituztenak. Problema, berriz, opor garaietan sortzen dira, uda partean batez ere: etxea utzik laga behar eta animaliarekin zer egin jakin gabe aurkitzen garenean. Arazoari irtenbidea eman nahian, orain dela gutxi ireki ditu ateak Bergaran txakurtegi batek.

Gaitao baserriaren inguruan (MAYCetik eta Agarreko Garaixetik gorra) Axen Garitanok zabaldu berri duen *Elurra* izeneko txakurtegiak bi zerbitzu eskeintzen ditu: alde batetik, Siberian Husky, Alaskan Malamute eta Samoyedo arrazetako txakur nordikoak hazi eta saltzen dira eta, bestetik, txakurren egoitza edo txakurtegi mo-

dura ere ireki da.

Axen Garitanori aspalditik datorkio txakurrak hazteko zaletasuna. Hasiera batetan baserriaren bertan zaintzen zuten, baina joan den uda ostean, ganorazko txakurtegi bat eraikitzea bururatu zitzaion eta horretan jardun du azken hilabeteetan: "hasierako asmoa ez zen txakurtegi bat zabaltzea, txakur nordikoak

hazi eta saltzea baizik. Baina, tira, baserri ondoko terrenoetan lekua nuela eta, txakurrendako egoitza egitea pentsatu nuen. Bergaran eta inguruko herrietan ez dago horrelakorik eta beharrezkoa den zerbitzu bat eskeintzen dut. Oraindik ez dut kanpoko txakurrik hartu baina, laister batean martxan hasiko naiz", esan digu Axenek Gaitaoko txakurtegian, bertan.


TXUKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA



Gaspar
Jatetxea, Txokolategia,
Self Service-a
Barrenkale 31 Tfnoa: 76 20 02
BERGARA

Txakurren egoitza

Txakur nordikoak hazteaz gain txakurren egoitza ere izan nahi du Elurrak. Hortarako 6 metro karratuko 12 gelatxo eraiki ditu Axen Garitanok. Horiez gain beste etxetxo prefabrikatu bat jarri du harreratarako: "gauzak ondo egin nahi izan ditut, horregatik txakurrendako gelak, esaterako, espazio dexente dute, adreiluz eraikita daude eta tetxua tejabanaz egina dago. Ateak burdinezko barraz eginak dira, tokia ondo aireatuta izateko".



Siberiako Huskys, iparretako herrialdeetako txakurrak Bergaran

Egun bakoitzeko 800 pezeta ordaindu behar da eta egonaldi luzeetarako deskontuak egiten dira.

800 pezeta horien truke Elurra txakurtegia eskeintzen diren zerbitzuak Axenek kontatzen dizkigu: "txakurren bat

ekartzean, egin behar den lehenengo gauza animalia-
ren fitxa bat betetzea da. Bertan, izan dituen edo dituen gaixotasunak, maniak, gustokoen duen janaria e.a.ak zehazten dira. Bestalde, esprai berezi batekin txakurra goitik behera garbitu behar da".

Txakurtegia ireki berri badu ere, udaltzainekin arazoren bat izan du dagoeneko. Itxura denez baten batek kexak azaldu ditu txakurren zaunkak direla eta. Axenen eritziz, "erraztasunak eman beharrean trabak jarri dizkirate. Bergaran diren txabola zahar eta zikinak ez dituzte kontrolatzen. Osera, ganorazko zerbitzu bat eskeintzeko asmoarekin, inguruan ez dagoen txakurtegia eraiki dut eta problema besterik ez ditut izan".

Axen Garitanok lizentzia fiskala eskatu eta legeak ezartzen dituen guztiak beteko dituela argitu digu. Oporretara joaten garenean txakur-
rekin izaten ditugun arazoari irtenbidea eman nahian txakurtegia zabaldu du, baina gauza bat argi dauka: "kalean aurkitzen dituzten txakurrak ez ditut sekula hartuko, gehienak arrez eta arkakusoz beteta egoten direlako eta hona ekarriko balituzte, bertakoak kutsatuko lituzkete".

Jaberik gabeko txakurren ardura, beraz, udaltzainei dagokie.

Problema serioa

Gaitaon ireki berri den txakurtegiarekin arazo larri bati, irtenbidea eman zaio neurri handi batean. Baina zer egiten da jaberik gabeko abereekin, kalean ibiltzen diren txakur horiekin?.


Problema serioa, abuztu aldean areagotzen da: nora eraman ez dakitela jabeek txakurra abandonatzen dutenean.

Ez Bergaran ezta inguruko herrietan ere, ez dago txakur abandonatuak jasotzen dituen txakurtegiarik. Gaur egun jaberik gabeko txakurrak, udaltzainek harrapatu eta egun pare baten eduki ondoren Gasteizeko txakurtegiara eramaten dituzte.

Uda inguruan, urtero 40 bat txakur jasotzen dira. Garai batean, bere kontura eraikitako txabola zahar batzuetan, Alex Odriozolak jasotzen zituen.

Udalak 2.000 pezeta ematen zizkion zerbitzuagatik. Baina instituzioen interes faltagatik aspertuta, utzi egin zuen.

Zenbat txakur daude Bergaran?, galdetuko diozue zeuen buruari. Erantzuna ez da erraza: txakurren erroldarik ez dago herrian; txertaketak, bestalde, ez dira beharrezkoak. Lehen bai, lehen albaiteruek txertatzen zituzten eta euren datuen arabera 4.000 inguru ziren. Gaur ez dakigu. Eta txakurren batek norbaiti haginka egiten badio, nola frogatu animalia norena den?...



LITXAR

Kruasantegia

• Gosariak • Askariak
• Hanburgesak / Sanwichak /
Plater konbinatuak / Pizzak
Fraiskozuri 4 Tfnoa: 76 55 45

ederTu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelifikak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS
oto istema

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

Txakurrak, etxean edukitzeko, gustoko dituzu?



Jose Diaz
24 urte, ikaslea

Etxean edukitzea problema bat da. Bestela, baserri batetan edo, edukiko nuke.



Amaia Eguren
40 urte, etxekoandrea

Gustatzen zaizkit baina etxean edukitzeko ez, beldur pixka bat diet.



Begoña Sanchez
26 urte, langilea

Bai, erosteko asmoa daukat. Momentuan ez, gurasoekin bizi naizelako.



Asier Arrieta
18 urte, ikaslea

Nahiago ditut baserrian, txakurrek espazio gehiago behar dutelako.

Deba bailaran oso entzuna den

IRRATI BATEK MERKATAL AGENTEA BEHAR DU

BALDINTZAK: euskalduna, Bergara edo Arrasatekoa, 25-35 urtekoa eta salmenta arloan (aseguru, liburu, publizitatea,...) gutxienez bi urteko esperientziaduna.

Baldintza ekonomikoak hautagaiaren esperientzia eta balioaren arabera.

Interesatuak idatz, kurrikuluma erantsiz, postakaxa honetara: 1643 DONOSTIA




**Dei
baten
zain**

Ikasle zaretenok ondo jakingo duzue azterketa egin eta notak ateratzen diren arteko egunak zein gogorrak izaten diren, "gaindituko nuen, ez nuen gaindituko" burutazioak, pentsamenduan etengabeko joan etorrian. Guraso zaretenok ere, ondo dakizue zelakoak pasatu dituzuen gaueko ordubietan etxeratu behar zen semea, goizeko zortzirak arte agertzen ez denean, "non ote da? zerbait gertatuko zitzaion? istripuren bat akaso? lagunena etxera deituko dut?".

Deskribatutako egoeren modukoak milaka egon badaitezke ere, ezin dira bergarar askok orain gutxi pasatu dutenarekin konparatu: Madrilen burututako azken epaiketaz ari naiz. Epaiketa urtarrilaren 21ean burutu zen eta sententzia otsailaren 10ean jakin arazi, tartean 20 egun. Imajina al dezake inork, sententziaren zain zeuden preso, familiar eta lagunak pasatutako egun horiek nolakoak izan diren? Legezkoak al dira epe horiek? Ezin al zaio hain gaizki funtzionatzen duen justiziari torturatzaile ad-jetiboa ezarri?

Ezetz uste baduzue, 20 egun beltz eta beldurgarri horietan telefono dei baten zain izan direnei galdetu.

Beñardo Kortabarria



**Justo
Garatekin
bat**

Oraindik oraintsu irakurri det, urtarrilak 17ko Berrigarán, aitatutako bergarar jaun orren elkarrizketa nere abizeneko idazle batekin eta beraren esanetan bat nagola azaldu nai det. Baina, berarekin bat, ez berarekin ados (a dos) orain erabilten den aldi berriko itz orrekin...

Gorrotu ditu Justo jaunak euskeraz esan ditezken itzak erderaz edo ez euskera eta ez erdera erabiltzea. Nik ere bai. Zergatik baztertu bear ditugu euskal itzak eta erderazkoei leku eman? "Abuztua" itza itxusia deritzaiola dio Justo jaunak. Nik ere orixe diot eta "dagonilla" esaten ezpadet ere "agostoa" esango det. Egokiago baita erderaz ondo esatea ez erdera eta ez euskera esatea baino.

Bein baino geiagotan irakurri diot "El Diario Vasco" egunkarian Antzuolatik idazten duan bati Zapatua itza Larunbata jarri bearrean. Orixe itza txorua! Ez "zapato" eta ez "oinetako" eta ez "larunbat". Erriak erabilten duan itza dala?. Bai zoritxarrez, eztakit zetarekin edo eserekin baina izki bat aldatzeak ez dio izkuntzari berekotasunik ematen; ori erdel itz zabar bat besterik ezta eta badakite Antzuolan Larunbata zer dan. Bakoitzak nai duan bezela idaztekotan ez legoke Euskeltzaindia beharrik:

Euskera maite degunok aalik garbiena eta txukunena nai degu. Itz galduak bildu eta berpiztu. Gai ontan badaki zerbait Justo garate jaunak. Bilketa aundia egiña baita R. Azkue jaunak bezela. Eta, oien lan aundia baztertu egin bear ote degu orain batzuen zabarkeriz?

Martin Gallastegi

**REMENTERIA
Altzariak**

Egongelak / logelak
Aukera guztiak / enkarguak
Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

*Tximak
Ileapaindegia*

Fraikozuri 3, Tfnoa: 76 56 69

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:
RAMON IRAEGUI



**ORDEZKARIA
BERGARAN**

Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA



VID-ART

Bidriera artistikoak

**BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.**

**Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk
egingo dizu.**

**BELANBIDE, Z/G - 20.570 BERGARA
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54**

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



ANDIZIV

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

Azulejo erakusketa • Onduline
P.V.C. • Blokeak • Pinturak

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan

C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41

Faxa: 76 (0) 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

□ Arrakastatsua

Ostiralean estreinatu zen Tolosan **Trapu Zaharra** talde donostiarraren *¡Oido cocinal* azken antzez-lana. **Itsaso Azkarate** bergararrak paper hirukoitza lantzen du Europa Ekialdeko errefuxiatu talde baten istorioa kontatzen den lan honetan. Egunkarietako kronika eta bertan izandako bergararrek kontatutakoaren arabera, barre algara ugari sortarazi zuen arrakasta haundiz estreinatu zen obra honek.



□ Balantzea

Joan den urteko beste zenbait datu dakarzkizuegu aste honetan. Al-biste tristeei dagokienez, 73 pertsona izan ziren joan den urtean **hildakoak** (62, aurreko urtean) eta, **jaiotakoak**, berriz, 92 izan ziren. 90ean 44 bikote **ezkondu** zitzaizkigun bitartean, iaz 43 pareja izan ziren elkarri baietza eman



ziotenak. Guzti horien artean, berriz, 31 bikote elizatik ezkondu ziren, eta gainontzeko 12 bikoteek nahiago izan zuten ezkontza zibila egitea. Ezkontzeko hilebeterik aukeratuena uztaila izan genuen, 6 ezkontzarekin, jarraian urria 5ekin eta ondoren martxoa eta maiatza 4 *bodarekin* bakoitzak. Abuztua, berriz, ezkontzarik izan ez zen hil bakarra dugu. Jakin izan dugunez, zenbaitzuk trajea prestatzen ari dira jadanik, ezkongabeko egunak amaitzen ari zaizkie eta...

ZAPELAITZ

Taberna


Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorenzo 25, BERGARA

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57



Mari Mar Fernandez eta Juan Antonio Igarza peñako kideak Miguel Angel Martinezekin.

□ **Hasiera bikaina**

Miguel Angel Martinezek pozez gainezka utzi ditu Bergaran duen *Huracan* peñako kideak jokatu berri den Andaluziako Bira irabazi ondoren. Peña hau osatzen duten 30 lagunek, *Maracenako Huracane* lortzen duen lehen garaipen garrantzitsu honen ondoren, aurtengoa 24 urteko txirrindulari honen denboraldia izango dela pentsatzen hasi dira.


□ **Meritua**

Otsailaren 2an argazkian agertzen diren **Karmen Unamunok** eta **Juanito Irizarrek** beren ezkontzaren 50. urteurrena ospatu zuten. Egun berezi horretan, nola ez, beren familikoen konpainia izan zuten, guztira 15 lagun inguru bildu zirela etxean egindako bazkari ederrean, tartean Karmen eta Juanitoren semea eta honek eman dien biloba. **ZORIONAK!!**




Zertan dihardute ba?

AGURTZANE LOIDI



Antzuolako *ELAY* enpresan langilegoa euskalduntzeko hasi duten plangintza piloatzailearen monitorea dugu 24 urteko bergarar hau. Proiektu hau beste zenbait enpresatan martxan jartzeko asmoa dago.

MIKEL LASKURAIN



Aktore bergarar honek, 26 urtekin, *Julio Medemek* zuzendu eta Berlingo Zine Jaialdian aurkeztuko den *Vacas* filmean hartu du parte. Hilaren 29an Bergaran izango dugu *Hika* taldearen lan bat antzesten.

ONGI ETORRI
Jatetxea
 Tfnoa: 76 63 49,
 ANTZUOLA

JUAN MARI IRIZAR
 Hagin klinika, aho sendagilea.
 Helbide berria hau da:
 Boni Laskurain 4, behea. Tfnoa 76 56 57

Umore giroan

Martzelo ispekziñuan

Egun baten, lartxo edana zeguala, "reglamentoa"ren bat autsi zeban eta eruan zeben inspekziñora. Itxura danez, bera zaintzen zeguan aguazilla be ez zeguan baraurik. Gure Marzelok atia jo eta deitxu eitxen zeban:

- I, emen naok ni gero!!

Andik apur batera, jo atia eta barriz:

- I, emen naok ni gero!!

Eta ola ia gau guztian. Urten zebanian inspekziñotik, Eulogio Garatek, jakiñik zenbat dekada egin zebazen an barruan egon zanian, esan eutsan:

- Baiñan, Marzelo, zergaitxik ainbeste diar?

- Zera, aguazilla ni baiño mozkor aundixauakin jeuan da, aztu eze-

ixan ni barruan neguanik.

...

Marzelo erloju barik

Sarri askotan, Katu Baltza biarrera berandutxo eltzen zan. Egun baten esan detsa Mateo Orbeak:

- I Marzelo, orduan etorri biok!

- Etxakat erlojurik eta orregaitxik batzuetan berandutxo eltzen nok.

Esaten dabenez, Orbea ugazabak erloju bat erregalau zetsan. Alperrik baiña.

Marzelok lengo moduan jarraitzen zeban. Ola gauzak, Mateo Orbeak esaten detsa:

-Marzelo, oiñ badaukak erlojua eta zergaitxik ator berandu?

- Erlojua bai, baiñan argirik eztaukagu etxian eta erlojua ikusi eziñ...

Pedro Urzelai

Antzinako kontuak

Bergarako edurzuloak

Abuztuko arratsalde bateko sargoriari kontra egiteko zer freskagarri hoberik limonada granizatuz betetako pitxarkada eder bat edatea baino.

Baten batek usteko du hau plazer modernoa dela, "hozkailluaren belaunaldiko" jendeak asmatua. Hau pentsatzen duenak ez daki asko gure aurretikoen irudimenaren berri. Frutarez, azukarrez eta edur prentsatzuz egindako edari izoztuak oso estimatuak izan ziren Bergaran XVII eta XVIII mendeen.

Edurra urte guztian, baita udan ere, eduki ahal izateko, udalak Elusuko baserritarren bat kontratatzen zuen honek edurzulo haundiak egin eta urte osoan manten zezan. Urritik apirilera arte edurdunak merke saltzen zuen, 2 ma-

rabedi libra, baina maiaztetik aurrera, eguraldia berotzen hasten zenean, prezioa 4 marabedira igozten zen.

Oraindik kontserbatzen da Agarreburuko edurzulo haundia, 820 metroko alturan dagoena, eta Neberetako txikiagoa, -520 metrora bakarrik dagoena- Amesti baserritik gertu.


Labeaga baserriaren etxostean dagoen Neberalde izeneko lekuak gogora ekartzen digu nola 1.704an Ignacio Etxeberriak edurzulo haundi bat egin zuen, baina itxuria oso abilidade gutxirekin eta edur guztia urtu egin zitzaion; urte hartako abuztuan Oñatin erosi behar izan zuten edurra neurritz kanpoko prezioak ordainduz.

Alberto Santana

ARDATZA
brikolaketa

Ateak
eta
horma-armairuak

Mahasterreka 4
76 18 93



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

Kirol Batzordeak herriko kirol beharrak aztertu ditu



Mateo Murua joan zaigu


Joan den igandean, 84 urte zituela, *Mateo Muruamendi* pelotazale bergarra hil zen. Mateo Muruak 21 urterekin egin zuen bere debuta pelotan eta hamar bat urte bigarren mailan jokatu ondoren erretiratu zen. Pelotari bezala ospe haundirik lortu ez bazuen ere, pelotaren alde lan haundia egin zuen enpresaria izan genuen; 50 bat urtez Bergarako Pelotalekuaren intendente izateaz gain, kritikoen eritziz, materiala inork baino hobeto ezagutzen zuen. Pelotaren mundua gertutik jarraitu zuen beti eta orain pare bat urte izandako bihotzeko infartoak eta azken asteetan jasaten ari zen gripeak betiko eraman dute Mateo Murua. Goian bego.

Datorren asteleheneko Gobernu Batzordean, *Kirol Batzordeak* gure herrian diren kirol instalakuntzei buruz egin duen txostena aurkeztuko du. Azterketa honetan gure herrian kirola egiteko dauden toki guztiak, erabilera eta ea probetxagarritasuna ateratzen zaizkien jasotzen da. Kirol Batzordeak herriko kirol talde guztiak instalakuntzen premiari buruz zer nolako eritzia zuten jakin nahi izan du baina guztiei bidali zaien kuestionarioa hiru taldek bakarrik erantzun dute.

Instalazio falta

Andoni Larrañaga Kirol Batzordeko zinegotziak kirol azpiegitura on bat izateko oraindik nahiko kirol instalazio falta direla uste du, "guztiz beharrezkoa jotzen dugu esate baterako beste polideportibo bat, eskubaloi pistaren tamainukoa gutxienez (45x28 m.), Labegaraietakoa txikia geratu da ta bai kirol taldeentzat eta bai kirola egin nahi duen jendearentzat ere".

Batzordeak kirol konpleju bat egin nahi du Agorrosinen; igerilekuei lehentasuna emango lieke, barrukoak ez bait du



Kirol konpleju Agorrosinen egin nahi da

Osakidetzak inposatutako hainbat neurri betetzen eta berritzu egin behar dira. Hortik abiatuta, gaur egun beharrezkoa den gimnasioa, Agorrosin berritzea edota aldagela amankomunak ere egitea da kirol arduradunen asmoa.

Epe luzera

Behin beharren informea hau Gobernu Batzordetik pasa ondoren, Bergarako Udalak Diputazioari laguntza ekonomikoa eskatuko lioke, epe luzera proiektu hau burutu ahal izateko. Laguntza lortuz gero, Bergarako Udalak konkurtso publikora aterako luke Agorrosingo kon-

plexuaren proiektua, Udalak Agorrosinen dituen terrenuetan instalakuntza ezberdinak kokatzeko asmoz. Hortik kanpo, Angiozarko frontoia estaltzea, Osintxu-koan aldagelak egitea eta San Migel Patronatoko frontoia txukuntzeko asmoa ere badago.

Kirol arduradunak bestalde, talde desberdinei ematen zaien subentzioa modu bidezkoago batean emateko sistema ezberdinak aztertzen ari dira. Momentu honetan gure herria subentzioak banatzerako orduan Gipuzkoako lehenetarikoa dugu eta, era berean, biztanle bakoitzeko kirolean gehien gastatzen duena da.

**JOSE
LUIS
eta
MIKEL**

Besaulki eta
tresiloen
konponketa
eta
tapizaketa.
Etxebarruen
dekorazioa

Urteaga 6, Tfnoa: 76 50 37 / 79 35 17

MINER Ardo onak,
ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA



Mariaren Lagundiko lagun taldea, 1.952-53

Eskola bakoitzak izaten ditu bere jai-egun bereziak. Mariaren Lagundia ikastolan Maria Haurtxoaren eguna eta eskolaren fundatzailearen eguna ospatzen dute. Juana de Lestonac fundatzailearen omenez egiten duten jai-egun horietako batean egindakoa da argazki hau, 1952-3 ingurukoa. Bordelen (Burdeoson) jaiotako emakume horrek Jesuitek mutilen heziketan betetzen zuten eginkizuna neskekin beteko zuen erakunde bat sortu nahi izan zuen. Bergarako ikastetxea 1799an sortu zen eta argazkiko hauen aurretik makinatxo bat pasako ziren. Hara eurok nortzuk diren:

Ezkerretik eskumara, zutik: Begoña Zezeaga, Sarita Calvo, Trinidad Sobron, Maribel Lazpiur, Rosi Pujana, Mari Asun Gonzalez, Rosa Mari Larrañaga, Mari Glori Laspiur, Manolita Villar, Begoña Muniategi, Luisita Elgarresta.

Makurtuta: Juli Andres, Arantza Alberdi, Mari Kontxi Oregi, Izaskun Barrena, Mari Tere Laskurain, Mari Tere Garzia, Ana Mari Gallastegi, Ana Mari Laskurain.

OHARRA: Joan zen asteko Erretratu Zaharrean agertu zen Bixente Garitanok eta Maria Teresa Caballerok bere andreak urrezko eztaiak ospatu berri dituzte. ZORIONAK!

*Estepan Plazaola
Argazkia: Rosa Mari Larrañaga*




**zumelaga
JATETXEA**

San Antonio 5 BERGARA
Tfnoa: 76 20 21

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



ETXEBIZITZA

Pisua alokairuan hartu nahi nuke. ☎ 76 03 31.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an. ☎ 76 42 52 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsalde).

Antzuolan pisua erosi-ko nuke. ☎ 76 62 36.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 04 15 (iluntzeko 8etatik 10etara bitartean).

Etxebizitza salgai San Lorentzo 25ean. ☎ 76 31 35.

Pisu txiki edo buhardila bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 32 70.

Pisua alokairuan hartu nahi dut. Beste lagun batzuekin ere konpartituko nuke. ☎ 76 55 09.

SALDU-EROSI

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. **Manuala eta automatikoa.** Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Fondoko hiru eski pare salgai, egoera onean eta merke. Bata 6-8 urteko batentzat, bestea 8-10ekoentzat eta bestea nagusientzat. ☎ 76 32 69.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdiautomatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Trabesiako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Kanping denda, karro eta guzti, salgai. ☎ 76 58 93 (Miren).

Musika jotzeko bateria salgai. Egoera onean. Prezioa eztabaidatu daiteke. ☎ 76 53 55.

Neskentzako bizikleta salduko nuke. *BH bolero rosa* modelo. 7tik 11ra urtekoentzako modukoa. Otzara eta guzti. ☎ 76 13 14.

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 15.000 pezeta. ☎ 76 21 35.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorrea, 3 pulgadako disketara, 30 joku. 35.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

LANA

Edozein motatako lanak egingo nituzke. ☎ 76 58 93.

50 urtetik gorako emakumea behar da andre eda detu bati laguntzeko. ☎ 76 51 62.

Arratsaldez lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen. ☎ 76 54 82.

Emakumezko euskalduna behar da haurrak zaintzeko. ☎ 76 02 57.

Neska euskaldun bat behar dut etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. ☎ 76 12 53.

Emakumezko euskaldun batek etxeetan interina lan egingo luke. ☎ 76 21 33.

Hildakoak

➤ *Angel Lazkano Juaristi*

otsailaren 6an, 81 urte

Mateo Muruamendiaraz Txintxurreta

otsailaren 9an, 84 urte

Jaiotakoak

Aste honetan ez da inor jaio Bergaran

**AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak**

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

Siberian - husky's
arrazako txakur kumeak salgai



Parasitogabetua
Txertatua
Pedigriduna

Tfnoa: 76 14 79

JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



MANGADO
VOCHOA

ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorenzo Poligono Industriala, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxa: 76 02 91. BERGARA



ASEGURU ARTEKARIAK

- ✓ Etxeko arrisku askotarakoa
- ✓ Garraioak
- ✓ Autoak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Bulegoak
- ✓ Pentsioetarako planak
- ✓ Istripuak
- ✓ Subsidioak
- ✓ Komertzioak
- ✓ e.a.

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA